

KORRIKA 24 BIDEO-LEHIAKETA

Martxoaren 19tik 29ra Korrikaren 24. edizioa egingo da. Oraingoan ere, Korrika bideo-lehiaketa antolatu dute Etxepare Euskal Institutuak eta Korrikak.

Helburuak

- Etxepare Euskal Institutuaren irakurletzetan euskara ikasten ari diren pertsonak Korrikarekin bat egitea.
- Munduko Euskal Etxeetako komunitateak Korrikarekin bat egitea.
- Korrika hasi aurretik giroa berotzea.

Nori zuzendua

- Etxepare Euskal Institutuak mundu osoan zehar dituen irakurletzetako ikasleei eta Euskal Etxeetako euskara ikasle eta komunitateari.

Lehiaketaren deskribapena

Munduan zehar euskara ikasten ari diren ikasleek eta Euskal Etxeetako euskara ikasleek Korrikari babesa emateko bideo-lehiaketa antolatu da.

Sariak, aukera hauetatik BAT adostuko dute saridunek, Etxepare eta AEKrekin:

-Irakurletzak:

- 1)AEKk antolatutako online barnetegia, bi pertsonarentzat.
- 2) AEKko *merchandisinga* eta materiala (liburuak)

-Euskal Etxeak:

- 1) AEKk antolatutako online barnetegia, bi pertsonarentzat.
- 2) AEKkako *merchandisinga* eta materiala (liburuak).

Oharra:

1. Saria hautatuz gero: irabazten duen bideoa kolektiboa bada, bideo horretan agertzen direnen ardura izango da barnetegiaren saria nork jasoko duen erabakitzea.
2. Saria hautatuz gero: irabazten duen bideoa kolektiboa bada, adostutako aurrekontuaren arabera bidaliko dira AEKko materiala eta *merchandisinga*.

Bideoaren edukia

Nork bere hiriko txoko bat erakutsiz euskaraz esaldi bat esatea. Esaldian ezinbestean aipatuko dira:

- Hiria
- Etxepare Euskal Institutua
- Korrika
- Korrikaren aurtengo mezua ("EUSKARA GARA") euskaraz edota tokiko hizkuntzan

Adibidez: “Kaixo Corketik! Etxepare Euskal Institutuko ikasleak gara. Gora Korrika! EUSKARA GARA.”

-Bideoan zer hiritan grabatzen ari zareten ikusi behar da.

-Iraupena: 20 segundo, gehienez ere.

Bozketa dinamika

Jasotako bideo guztiak egun berean, **otsailaren 21ean**, zintzilikatuko dira [AEKren Youtubeko kanalean](#). Bozka epea amaitzean Youtuben “Atsegin dut” gehien jasotzen dituen bideoa izango da irabazlea.

Egutegia

-Otsailak 18: Bideoak jasotzeko epea itxiko da (23:59 GMT+1).

-Otsailak 21: Bideoak Youtuben argitaratuko dira eta bozkatzeko epea hasiko da.

-Martxoak 3: Bideoak bozkatzeko epea amaituko da. (10:00 GMT+1).

-Martxoak 4: Bideo irabazlea zein den jakinaraziko da Etxepare Euskal Institutuaren webgunean.

Bideoarekin batera bidali behar den argibidea

-Igorlearen izen-abizenak

-Bideoan ikusten den hiria eta herrialdea

-Unibertsitatearen izena / Euskal Etxearen izena

Bideoak nora bidali

Euskal Etxe bateko kidea bazara: euskaramunduan@etxepare.eus

Irakurletza bateko ikaslea edo irakurlea bazara: irakurletzak@etxepare.eus

Oharra:

1 Etxepare Euskal Institutura bidalitako bideoak norberak zabaltzea ere zilegi da Korrika hasi aurretiko giroa berotzeko. Etxeparek ere zabaltzea nahi izanez gero egin mentzioa Facebook (facebook.com/etxepareinst) edo Instagram Stories (@etxepareinst)

2 Korrika 24 bideo-lehiaketa eta munduan zehar antolatuko diren Korrikak jarduera independenteak dira eta bakoitzak bere bidea jarraituko du. Korrika bideo-lehiaketan parte hartzeko nahikoa izango da azalpen honetan adierazten diren baldintzak betetzea.